

E26 GUADALUPEKO GAZTELUTXOA





ETRS89 koordenatuak: UTM30N:

X=595468 m
Y=4802264 m
altuera=196 m

WGS84 koordenatuak: geografikoak:

Longitueda: -1 49 18.1
Latitueda: 43 22 1.7

Egilea:

Urtea: 1947

Kokalekua: GI-3440 errepidetik Guadalupeko gotorlekura daraman bidearen hasieran.

Sarbidea: GI-3440

Tipologia: Mugarria

Materiala: Hormigoia.

Interes orokorra. 1/5.

Babesa:

- **EAE:** EZ.
- **Udal babesa:** EZ.
- **Gomendioa:** Udal mailan oinarritzko mailan babestutako elementuen artean aintzat hartzea.

Kontserbatutakoaren ehunekoa: % 100.

Katastroko erreferentzia: -

Argiak: Ez.

Errotulazioa: Ez.

Testuak mugarrian:

Año 1947 / FUENTERRABIA – AL FUERTE

RGTO. Z. 6 / A LEZO – A FUENTERRABIA [= Regimiento de Zapadores n. 6]

BON. 61 DIV. / AL FUERTE – A LEZO [=61. Dibisioko Batailoia].

Egoera: Ona. Arrakala txikiak. Bi almena falta zaizkio.

Arriskuak: Bidegurutze baten erdian dagoenez, ibilgailu batek kolpatuta gertatu daiteke.

Deskribapena:

Oinplano hexagonaleko eta piramide-enbor forma ez oso nabarmeneko gaztelutxo. Hiru aurpegitan, txandaka, ate eta idi-begi bana daude erliebean landuta, eta beste

hiruek zokalo bat dute. Almena bat du gainaldean, eta haren gainean altxatzen da, zaldun gisa, beste dorretxo hexagonal bat, hiru aurpegitan, era berean txandaka, idi begi bana. Dorretxo horrek ere almenak dauzka gainaldean.

Bi mailek osatutako oinplano triangeluarreko harmaila baten gainean hartzen du atsedean gaztelutxoak. Harmailako kontramailan daude zizelkatuta arestian adierazitako inskripzioak: alde batetik, gaztelutxoa landu zuen unitatea adieraztea du xede, eta bestetik, Guadalupeko gotorlekurako eta Hondarribirako eta Lezorako bideak.

Ohar historikoak:

Lezotik Guadalupeko Gotorlekurako errepide militar beraren eraikuntzarekin (gaur egungo GI-3440) eta 1940ko eta 1950eko hamarkadetan Guadalupeko gotorlekuaren inguruan antolatutako instrukzio kanpamentuarekin lotu behar da monumentu hau. Kanpamentu hori batez ere mugarran adierazten den ingeniari erregimentuari emana zegoen.

Gomendioak: Bidegurutze erdiko egitura hau informazio edo trafiko seinaleak instalatzeko oinarri gisa erabiltzea saihestea (ezinbestekoak diren zirkulazio seinale ofizialak baizik ez dira baimendu behar).



